

the killin' washi
 DESPABILATE
 TRUKU TXIKIAK
~~BECHRA~~ NEKA INDA
 PARASITOAK
 THE CLASH
 JOSTUNAK
 GIZAKI *1
 BIKOTE
 FIGHT ZIPAYO
 MUELA *2
 ESKATU ZERUAR *3
 BI TANTA
 JESUS
 putoamoakr



PAM: "Musika egiterakoan ez gara inoiz larregi konplikatu"

Ez dira 20 urte alferrik pasatu PAMeko laukoteak lehenengo punteoak eman zituenetik.. Gaur egun, taldea eskarmentu handiko lau buruk eta zortzi eskuk osatzen dute, Iker Saenz de Zaitegi (ahotsa eta gitarra), Markos Bimeno (baxua eta ahotsa), Carlos Balseiro (gitarra eta ahotsa) eta JuanMi Brauok (bateria eta koroak).

e|karrizketo

- 20 urte pasa dira musikan lehen urratsak eman zenituztenetik. 20 urte gehiago izateaz gain, zer azpimarratuko zenukete elkarrekin egin duzuen ibilbide horretan?

Musikari dagokionez ildo bera mantendu dugula esan daiteke. Instrumentuak menperatzeaz gain, musika egiterakoan ez gara inoiz larregi konplikatu. Beti, aurretik egindako musikaren keinuak nabarmentzen dira. Ez dugu inoiz estilo bat guztiz baztertu. Agian "Dantzut"-en garaia izan zen diferenteena. Orduan, Estherren ahotsa eta gitarra bakarra zegoen, Julio Kagetaren ondorengo bidea izan zen. Baina PAM-ekin beti egin izan duguna berreskuratu dugu. Guk ez dugu inoiz bilatu gauza konkretu bat egitea. Naturaltasunez ateratzen zaigu. Gaur egun ere ikasten jarraitzen dugu eta horrek beste era batera jokatzeko aukera ematen digu, nahiz eta ez garen konplikatzen.

- Ez zarete konplikatzen diozue. Zertan atzeman daiteke musika konplikatua dela?

Abesti zailak egitea, entzulearen lekuan jarritz gero, abesti sakonak, erritmo ezberdinetakoak, arreglo asko dituzten abestiak... Guk ordea, abestia hasi, estribilloa, punteo eta bukatu egiten dugu. Filosofia horrekin



Laukotea diskoa prestatzen burubelarri aritu da.

beti egiten dugu aurrera. Abestirako erritmoa berehala ateratzen zaigu eta gorde egiten dugu. Gero hori konpontzen denbora ematen dugu baina beste talde batzuk baino gutxiago seguras-ki. Normalean, hasieran atera zaigun hori errespetatzen dugu.

- 20 urte hauetan, jende ezberdina, izen ezberdinak... baina 1985ean piztutakoari jarraitzen diozue?

Jakina. Hasierako kide batzuk era naturalean taldea uzten joan ziren eta ordezkoren bat bilatuz aurrera egin dugu beti. Gainera musikan modu amateurrean ari zarenean oso normala da horrelakoak gertatzea. Maila batera heltzen zarenean, denbora gehiago eman behar duzu eta hor norberak

bere lehentasunak markatzen ditu. Horrela, Markos Julio Kagetaren azken aldian sartu zen, bera "Saizulo" taldetik zetorren eta bestalde, Carlos, manager eta teknikari lanetan zebilena hasierako garai hartan, gaur egun taldean dago gitarra jotzen. Hala ere, Carlosek egin zituen bere bakarkako lanak, "Kubanakhan" -en esaterako eta "The Pepes"-en ere aritu zen.

- Taldean izan diren aldetan beti gertuko jendea sartu duzue.

Bai, gure inguru hurbileko jendea sartu dugu taldean, ez gara inguruko herrietara joan norbaiten bila. Gurekin denbora konpartitu dezakeen norbait bilatu dugu beti, elkar aguantatzeko. Musika, sormen prozesua eta teknika (on edo txarra) izateaz gain, elkar bizitza da, taldean aritu beharra, ondo pasatzea eta horri beti garrantzia eman diogu. Gure artean ez balitz harreman onik egongo, ez genuke gozatuko.

- Zuen azken lana IXA da. Tituluaren nondik norakoa ere X...

Bai. Alde batetik Ixa (X letra) estetikoki ondo gertatzen da. Puto Amoak Matematiketan izenarekin ere zuzenean lotzen da eta abesti batzuk matematika-ekin jokatzu egin direnez, egokia iruditu zitzaigun.

Bestalde, X zenbakia erro-matarrez hamar da, diskoa hamar kantuk osatzen dute eta hamar eurotan dago salgai. Era berean, "X" inkognita matematikoa da, hamar abesti horietan dagoen konstantea. Diskoaren diseinuak berak ere ematen du irakurketa gehiago egiteko. Hizki eta zenbakien konbinazioarekin jokatzu "IXA" bera "1X4" delako: lau lagun proiektu baten zerbitzura.

- Azken lan honetan jende askoren kolaborazioa izan duzue.

Bai eta horrek zerikusi zuzena izan du Ikerrekin. Gure taldeko gitarra-jolea izateaz

gain, Eibarko "Kokein" taldeko gitarrista ere bada. Beraz, eurengana jo dugu, gaur egun gure inguru hurbileko jendea delako. Eibarko taldekide guztiek nola edo hala lagundu digute. Haritz Letek masterizazioa eginez, diskoaren azken ukituak emanez alegia. "Ikasi dut" abestian ahotsa sartu du. Bestalde, Zaloa Urainek "maitematika" eta "taxi bat" kantetan ahotsa sartu du. Halaber, Maite Arroita-jauregik txelo konponketak egin ditu "madarikatuak" eta "efimero" abestietan. Elgoibarko Alberto Iriondoren Hammond teklatu konponketak "taxi bat" eta "maitematika" abestietan eta Raul Bogajo argazkilaria egindako lana ezin aipatu gabe utzi. Honek guztiak lana borobildu egin du zailtzarrik gabe.

- Ez da zuek autoproduzitzen duzuen lehenengo lana. Zergatik autoproduzioaren erabaki hori?

Alde batetik disko etxe batekin grabatzea zaila delako eta guk aurrera jarraitu nahi badugu ezin gara horren zain egon. Bestalde, gure lokalean aukera dugu-lako grabatzeko. Karlos ia-ia teknikari profesionala da eta zorionez badugu disko bat grabatzeko beste medio. Gainera etorkizunean talde batek baino gehiagok bide hori hautatu beharko du, disko etxeek ere ez dutelako etorkizun onik. Horren adibide, "Metak" disko etxearen itxiera.

- 10 abestik osatzen du Ixa lana eta guztiak berriak dira oraingo honetan. Zeri buruz hitz egiten duzue?

Denetarik kontatzen dugu, normala den bezala, kontatzen dugun horrek zerikusi zuzena dauka gure bizipen eta inguruan ikusten dugu-

narekin edo bizitzarekin oro har. Amodioa, askatasuna, ludopatía... Abestietako batek PAM-en himnoa izan behar zuela erabaki genuen. Hor esaterako, gutaz hitz egiten dugu eta matematikekin zerikusi gutxi dauka kantak.

- Ez da zuek autoproduzitzen duzuen lehenengo lana. Zergatik autoproduzioaren erabaki hori?

Alde batetik disko etxe batekin grabatzea zaila delako eta guk aurrera jarraitu nahi badugu ezin gara horren zain egon. Bestalde, gure lokalean aukera dugu-lako grabatzeko. Karlos ia-ia teknikari profesionala da eta zorionez badugu disko bat grabatzeko beste medio. Gainera etorkizunean talde batek baino gehiagok bide hori hautatu beharko du, disko etxeek ere ez dutelako etorkizun onik. Horren adibide, "Metak" disko etxearen itxiera.

- Nolako izan da lan honen ekoizpen prozesua?

Gu musika egiten dugun taldea gara, lehenengo musika egiten dugu. Disko honetan aurreikusia geneukan



Produktzioa euren entsaio lokalean egin dute.

"Holaborazio guztiek lana borobildu dute"

prozesua jarraitu dugu. Lehenengo erritmo batzuk grabatu ditugu, gero erritmo horiek abesti kutsua emateko landu ditugu. Ondoren, abestiak berak, letrarik gabe zer iradokitzen zigun, zer eskatzen zigun ikusi eta horren arabera jarri izan diegu letra. Beste batzuetan, aurretik egindako letrak berreskuratu eta musikarekin lotu ditugu. -Promozio lana zaila da hainbeste musika aukeratzeko dagoen garai hauetan? Nola lortu nork bere lekua?

Gaur egun talde asko eta asko dago. Gu hasi ginenean instrumentuak jotzea ez zen hain arrunta eta oso teknika gutxi zegoen. Orain gazteak oso goiz hasten dira ikasten eta sekulako teknika dago eta askoz hobeto jotzen dute. Dena dela, egun, kalitateko talde bat ateratzen denean eta nahiz eta ezezaguna izan, lortzen du bere lekua. Beste talde batzuk mediatikoak dira hasieratik, gero kalitatezkoak izan daitezke hala ere. Gu nahiko behean gaude zentzu horretan.

- Ez zarete jendetza erakartzen duzuen taldea?

Bai, guk hori argi daukagu. Hala ere, gauza bat bermatzen dugu. Kontzertuetara etortzen dena ez da joaten, azkenera arte geratzen da. Ez dugu jende asko erakartzen mediatikoki ez dugula-

ko indarrik.

-IXA diskoaren aurkezpena Iruñeko Akelarre tabernan egin zenuten, zer dela eta Iruñean?

Ermuan jo aurretik Ermutik kanpo jo nahi genuen, zuzenean entrenamendua hobetzeko eta Iruñean jo genuen lehenengoz. Ermuan martxoaren 4an arratsaldeko 8etan Zappan joko dugu, gure hasierako garaia gogoratzeko. Guretzat hori izango da benetakoa aurkezpena.

-Nolako harrera izan du diskoaren aurkezpenak oro har?

Prensa idatzian agertu gara hainbat lekutan eta promozioa oso ondo joan zaigu, ezin gara kexatu. Gainera guk egin dugu promozio lana lehenengoz eta horrekin pozik gaude. Kritika espezializatu oso gutxi egon da orain arte. Agian denbora gehiago itxaron beharko da. -Profesionalki ezin musika- ra dedikatu, baina orain arte bezala jarraitzeko asmorik?

Bai, hemen gaude eta horrela jarraitzeko asmoarekin. Promozioarekin gustora gaude, orain, kontzertuak lortzea falta zaigu eta hori nahi dugu nahi beste denbora horretan eman, baina ahalegina egingo dugu, azken finean hori da benetan nahi duguna, zuzenean jotzea.

Alazne Aiestaran

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17.66.99
ILEAPAINDEGIA

Solozabal
estankoa

torrekua z/g
Tel/Faxa. 943 17 07 33
fax publikoa

**PUB YOMY**
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

**BOAN Oinetakoak**
SEXTO CENTENARIO, 17
48260 ERMUA Bizkaia
(943) 17 13 44